



Bertaratutako kideak:

**Santiago Álvarez Folgueras jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Javier Albizu Sanz jn.**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

**Pedro María Baile Torrea jn.**

Representantes de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria CONCAPA

**Ernesto Delas Villanueva jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN

**Iñaki Berasategi Zurutuza jn.**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

**Sonia Cabrero del Amo and.**

Representante de las Asociaciones que trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkartein ordezkaria

**José María Carrillo Álvarez jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkartein Federazioen ordezkaria HERRIKOA

**Carmela Muñoz Ventura and.**

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

**Camino Bueno Zamarbide and.**

Representante de Directores y Directoras de centros docentes públicos/Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria

**Francisco José Flores Pérez jn.**

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkartein ordezkaria

**Nekane Oroz Bretón and.**

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren

Iruñean, 2016ko irailaren 28ko 17:15 direlarik, Nafarroako Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari ofizialaren absentziarekin, eta bere ordezkari Esther Monterrubio kontseilukidea idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Hezkuntza Kontseilariaren Agurra, Nafarroako Eskola Kontseiluaren ikasturte hasierarako.
2. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.
3. Informazio orokorrak.
4. 2016-2017 lan egitasmoa (proposamena erantsita).
5. 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena.
6. 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluko Memoria.
7. Galde-eskeak.



ordezkaria

**Esther Monterrubio Ariznabarreta and.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Ander Domblás García jn.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Alfredo Hoyuelos Planillo jn.**

Personalidad de reconocido  
prestigio/Aitortutako ospea duen  
pertsonalitatea

**Cristina Bayona Saez and.**

Representante de las  
Universidades/Unibertsitateen ordezkaria  
UPNA

**Aurora Bernal Martínez de Soria and.**

Representante de las Universidades  
/Unibertsitateen ordezkaria. Universidad  
de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Representante del profesorado de  
centros privados/Ikastetxe Pribatuetako  
Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Representante de Directores y Directoras  
de centros docentes privados  
concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako  
zuzendarien ordezkaria

**Mikel Fernández de Quincoces**

**Martínez de Birgala jn.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**Roberto Pérez Elorza jn.**

Representante de la Administración  
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren  
ordezkaria

**M<sup>a</sup> Soledad Garjón López and.**

Representante del profesorado de  
centros públicos/Ikastetxe Publikoetako  
Irakasleen ordezkaria AFAPNA

**Lourdes Larunbe Arretxe and.**

Representante del Personal de  
Administración y Servicios de los centros  
Docentes/Ikastetxeetako Administrazioko  
eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.**



Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**Juan Larraza Pérez-Salazar jn.**

Representante del alumnado de los niveles no universitarios de los centros privados de Navarra/ Unibertsitate aurreko hezkuntza pribatuaren ikasleen ordezkaria

**Jorge Lanchas Rivero jn.**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra/Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE

**Amaia Zubieta Garciandia and.**

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

**Ignacio Toni Echeverría jn.**

Representante de las Personas con discapacidad de Navarra/Nafarroan desgaitasuna duten pertsonen ordezkaria/ CORMIN

**Josu Repáraz Leiza jn.**

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra- Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria- Nafarroako Ikastolen Elkarte

Beren absentzia desenkusutzen dute:

**M<sup>a</sup> Luisa de Simón Caballero and.**

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

**Francisco Javier Pérez Cueva jn.**

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Ez dira bertaratzen:

**M<sup>a</sup> José Anaut Couso and.**

Representante de las organizaciones sindicales/Sindikatuaren ordezkaria/UGT



**Sergio Gómez Salvador jn.**

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/ Ikasleen Gurasoen Elkarteon Federazioen ordezkaria CONCAPA

**Miren Aranoa Astigarraga and.**

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (EH BILDU)

**Josu Millán Bargodá jn.**

Representante del alumnado de los niveles no universitarios de los centros públicos de Navarra/ Unibertsitate aurreko hezkuntza publikoaren ikasleen ordezkaria

**1.Hezkuntza Kontseilariaren Agurra, Nafarroako Eskola Kontseiluaren ikasturte hasierarako.**

Nafarroako Eskola Kontseiluko Lehendakariak José Luis Mendoza jaunari, Hezkuntza Kontseilariari, hitza ematen dio. Hitza batzuk esaten ditu, gaztelaniaz eta euskaraz, Eskola Kontseiluko kideak agurtzeko.

**2. Aurreko bileraren akta berraztertu eta, hala behar bada, onetsi.**

Hezkuntza Administrazioaren ordezkari bezala izendatutako eskola Kontseilukide berriak aurkeztu ondoren, Lehendakariak galdetzen du ea norbaitek 2016ko ekainaren 28ko Osoko bilkurak egindako saioaren Aktan jasotakoari eragozpenen bat adierazi nahi al duenik dagoen galdetzen du.

Idazkariak adierazten du Santiago Álvarezek era idatzian aurkeztutako alegazio bat jaso duela. Bertan, aktaren zirriborroan agertzen diren Gurasoen Mahaiaren deialdiarekin zerikusia esan zituen hitzak zehaztu nahi ditu. Aktari gehitzea adosten da.



Beste alde batetik, M<sup>a</sup> Soledad Garjón and. akats bat ohartarazten du, AFAPNAko ordezkarien arteko bertaratuen barruan egon baituelako. Alegazio hau baieztapenez eranstea onesten da.

Beste alegaziorik ez dagoenez, aipatutako zuzenketekin onesten da akta.

### **3. Informazio orokorra.**

Ondoren, José Luis de la Monja jaunari oroitzapen bat egiten dio Lehendakariak, Estatuko Eskola Kontseiluko Idazkaria, orain dela gutxi hildakoa. Beren lana bukatu duten Juan Ramón Elorz Domezain, Pilar Elcarte Elcarte, Estebe Petrizan Iriarte eta F. Javier Pérez Cuevas kontseilukideei eskerrak ematen die egindako lanagatik. Gero, azken Osoko bilkuratik egindako bilera eta jarduera nagusiak azaltzen ditu.

Hurrengo urtetik aurrera Eskola Kontseiluak urtero bi jardunaldi egingo dituela aurreratzen du: batzuk udazkenean, berrikuntza proiektuekin lotuta, eta besteak udaberrian, landa eremuko eskolei buruzkoak. PAI ebaluazio batzordean lanean ari da ere, eta berehala aterako diren argitalpenetan ere (Haur Hezkuntza, Berrikuntza proiektuak eta Landa eremuko eskola). Gainera, NHST egitearekin jarraitzen da.

### **4. 2016-2017 lan egitasmoa (proposamena erantsita).**

2016-2017 ikasturterako Eskola Kontseiluko Lan Egitasmoa osatzen duten lan lerro nagusiak aditzera ematen ditu Lehendakariak. Deialdiarekin batera bidali da bertaratutakoei.

Lerro nagusiak bezala, Lehendakariak azaltzen du ikerketa eta hedapenaren bitartez, Nafarroako hezkuntza-sistemaren kalitatearen ezagutza, ebaluazioa eta hobekuntzari laguntza emateko, lan egitasmoak 2015-2016 Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena sortzea jasotzen du. Era berean, txosten beraren hurrengo ikasturteari dagokion prestatzea eta hobekuntza proposamenak egitea ere kontutan hartzen ditu. Gainera, Nafarroako hezkuntza-sistemaren interes guñeak bereziki



aztertu, gai monografikoen ikerketa eta komunikazioen aurkezpenak egin edota Hezkuntza arloko ikerketa lanak egin Nafarroako unibertsitateen laguntzarekin.

Intereseko hezkuntza-gaien informazioaren, ikerketen eta esperientzien zabaltzea eta elkar trukitzea sustatzea egitasmoaren beste helburu nabarmengarria da. Honen barruan, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XVIII. eta XIX. Jardunaldiak edota Kontseiluaren Arratsaldeak bezalako ekintzak jasotzen dira, hala nola, IDEA aldizkariaren hedapena, besteak beste.

Beste alde batetik, Kontseiluaren agerpen instituzionala gizartean indartu eta hezkuntza eremuko zentro eta erakundeekin harremana bultzatzea bilatzen da. Hau lortzeko, Komunikabideetan agerpen aktiboa eta erregularra mantentzea eta Kontseiluaren jarduerak atari digitalaren bidez zabaltzea bilatuko da, besteak beste.

Orobat, eta hezkuntza sistemaren hobekuntza bultzatzeko, Estatuko eta Autonomietako Eskola Kontseiluekin elkarlana egitea da Kontseiluaren ikasturte honetarako beste helburuetako bat.

Eskola Kontseilua beharrezko baliabideez hornitu, bere funtzioak modu egokian garatu ahal izateko eta kudeaketaz arduratzea da egitasmoak jasotako beste xede bat. Horretarako, bere aurrekontua kudeatzea, bere langileria behar berriak kudeatzeko hezte eta Departamentuarekin batera, irakaskuntza-aholkulari baten kolaborazio iraunkorra aztertzea proposatzen ditu.

Azkenik, Nafarroako berezko bi hizkuntzen erabilera posiblea den eremu guztietan normalizatzeko nahia azpimarratzen du lan egitasmoak. Horretarako, alde batetik, gaztelaniaz edo euskaraz egiten diren eskaera instituzionalak eta pribatuak erantzungo dira eta, bestetik, erabilera elebiduna bultzatuko da Kontseiluaren jardueretan, komunikazioetan eta ekoizpenean.



Ondoren, Estatuko Eskola Kontseiluaren paralisiarekin sortu den ziurgabetasun egoeraren berri ematen du. Lehendakari, Lehendakariordea eta Idazkariaren faltak LOMCEn aurreikusitako errebalidekin lotutako ziurgabetasuna ekarri du. Bestetik, urriko Osoko bilkuran Nafarroako Eskola Kontseiluaren Aurrekontuen proiektua landuko da.

Bestalde, Eskola Kontseiluaren jarduerak eta pisua sendotzen saiatuko dela adierazten du. Horrela, bertatik pasatzen ez ziren garrantzizko gai batzuk hemendik aurrera pasatzea bilatzen da; PAIren eboluzioa, Ikastetxeen Zuzendaritzen sarreraren araudia, KAOak edota eskola jardunaldiaren araudia. Gaiaren gaineko ikuspuntu ezberdinak agerian uzten duten eztabaida txikia sortzen da.

Batzuetan, erabaki hartzeak beharrezkoak dituen erritmoek ez dute uzten Kontseilura bideratzea, azkar erantzun behar delako, dio Nekane Orozek. Iñaki Iraizozek, bere aldetik, muga batzuk pasatzen badira, Kontseiluak ezingo duela bere iritzia eman gai guztietan gehitzen du. Horren arrazoia, batzuetan gaiaren ezagutza oso espezifikoa behar delako da, eta honek barne hartu ezinezko arduraldia izango litzateke.

Camino Buenok dio, irakaskuntza publikoekin zerikusia daukaten arauetan (KAO, zuzendarien aukeraketa...) ez luketela itundutako irakaskuntzaren ordezkariak parte-hartu behar. Santiago Álvarezek ustez, adostasuna garrantzitsua da edozein kasutan, eta Kontseilura ekartzen diren gaiak handitzearen alde egiten du, eskola egutegia, adibidez.

## **5. 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Hezkuntza Sistemaren Txostena.**

Joan den ikasturtearen bukaeran landu zen berrikusketaren ondorioz, NHSTaren 2. atala dimentsio handiagoa eman zaiola azaltzen du Lehendakariak. Gauza bera gertatu da 4. atalarekin, 3. eta 5. atalak, berriz, egonkorragoak dira.

2. atala idatzita dagoenez, dagokion batzordeari pasako zaio, azaroari itxaron gabe, eta atalak egin ahala dagokien batzordeei bidaliko zaizkie.



Ea atalak dagozkien batzordeek ikuskatu ondoren Osoko bilkurara bidaliko diren galdetzen du Camino Buenok, edota atal guztiak edukitzera itxarongo da, denak blokean bidaltzeko. Lehendakariak, ziur aski atalak era independentean bidaliko direla erantzuten dio.

## **6. 2015-2016 ikasturteko Nafarroako Eskola Kontseiluko Memoria.**

Memoria egina dagoela aurreratzen du Lehendakariak, eta jada Iraunkorrean aurkeztu zela. Ziur aski bihar bidaliko da Batzorde Iraunkorrari, urriaren 26ko Osoko bilkuran onesteko asmotan.

## **7. Galde-eskeak.**

Lehendakariak Idazkariari ematen dio hitza, eta honek funtzionamenduaren araudiaren berrikusketa bat planteatzea komeni dela azaltzen du. Helburua, irizpenen eduki eta helburuekin lotutako hainbat eztabaida argitzea da. Ondoren, behar hau agerian jartzen duen eztabaida bat sortzen da kideen artean.

Azkenik, Jesús M<sup>a</sup> Ezponda jakinarazten ditu Isterria Hezkuntza bereziko ikastetxean bere seme-alabak eskolatzen dituzten familien arazoak. Itundutako ikastetxe bat izanda, eskola garraiora izateko ezberdintasunak daude. Nekane Oro zeta Ander Domblasek Hezkuntza Departamentuak aztertuko dela adierazten dute.

Eta beste gairik jorrazteko ez daudenez, Lehendakariak bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 18:50 orduetan.